

Ingurumen Buletina

- 1. COP19 Varsovia (Klima Aldaketari buruzko Goibilera).***
- 2. AHTk ez du murrizketarik izan aurrekontuetan.***
- 3. Pasaiaiko Portuaren birsortzea kanpoko porturik gabe egiteko adostasuna.***
- 4. Zubietako erraustegiaren behin betiko geldiaraztea adostu da.***
- 5. Konferentzia ekosozialista Ginebran.***

1. COP19 Varsovia (Klima Aldaketari buruzko

Goibileran). Gobernuak ez, baina klima

aldaketa aurrera doa...

NBE 19. Klima Aldaketari buruzko Goibileran bildu da azaroaren 11tik 22ra Varsovian. Beste behin ere, gero eta gogorrago jotzen gaituen klima aldaketa geldiarazteko konpromiso sendoak lortzea zen helburu teorikoa. Filipinak izan dira kolpe gogor hau jaso duten azkenak, goibilerako egunetan zehar gainera, baina horrek ere ez diete erreakzionatzea eragin. Arazoa borondate politiko falta da.

Urteroko goibileran honen dinamika azken 5 urteetan, 2009an Copenhagen egin zenetik, benetako emisioen murrizketei buruz hartu beharreko erabakia ekiditea eta atzeratzea izan da, 2009an adostu behar baitzuten. Baina horren ordez beste gai batzuk eztabaidatzen aritu dira: garapen garbirako mekanismoak, finantzaketa, epe luzerako akordioak,... Puntu hauek ere garrantzitsuak dira baina emisioen benetako murrizketarik ematen ez bada, beste neurri hauek ez dute klima aldaketa geldiaraziko eta hau da helburu nagusia.

Nola ez, Varsovian ere puntu batzuen inguruan akordioak izan dira, gero eta garrantzi gutxiagokoak, eta baita hurrengo

goibileretarako asmo onen adierazpenak ere. Orain 2015ean Parisen ospatuko den COP21 jarri da hurrengo mugarri gisa. Beste luzapen bat.

Benetan behar dena da: estatu bakoitzak bere garapen mailaren arabera egin behar dituen emisio murrizketak zehaztea (benetako murrizketak, ez hauek kontatzeko tranpak), emisioak gutxitzeko eta dagoeneko herrialde batzuk sufritzen ari diren kalteetara egokitzeko finantziarioa, eta garapen bidean dauden herrialdeek etorkizun jasagarria izan dezaten laguntza ekonomiko eta teknologikoa ematea. Trantsizio justu bat egin behar da denok etorkizun jasagarri bat izan dezagun. Gainontzekoa esan daiteke bigarren maila batean geratzen dela, eta akordio handi hori lortu ondoren egin beharrekoa izango dela.

Hau lortzeko herrialde bakoitzak bere ardura aitortu behar du, ezberdina baita bakoitzaren emisio eta garapen mailaren arabera, eta eragin dituen kalteen ardura hartu behar du baliabiderik ez duten herrialdeei finantzaketa eta teknologia emanaz, azken hauek izan dira gainera kalte handienak sufritu dituztenak. Baina ardura gehien dituzten herrialdeek ez dute hau onartzen eta honek, negoziazioei dagokienez, egoera tamalgarri batera eramanez gaitu.

COP19an atzeraka goazela ikusi da eta ez dagoela akordio garrantzitsu eta lotesle batera eramango gaituen bide argirik. Varsovian ez da ikusi emisioen murrizketak areagotu direnik, ez klima aldaketara egokitzeko laguntza gehiagorik (bi puntu hauetan atzera pausuak izan dira), finantzaketari buruz hitz egin da benetako konpromisorik hartu gabe, energia kutsatzaileen enpresa interesak hiritarren interesen gainetik jarri dira (COPari paraleloki “Ikatza eta Klimaren Goibileran” burutu da), Konferentziaren presidentzia (Polonia) ikatzaren eta frackingaren industriari oso loturik dago, eta Australia, Kanada eta Japonia bezalako herrialdeek NBEren negoziazio prozesua alde batera utzi dute. Hauek eta beste burugabekeria asko izan dira Klima Aldaketaren Goibileran.

Panorama hau ikusita, ezin dugu benetako eta bidezko irtenbiderik espero Parisen 2015eko COPerako. Nahiago genuke oker egotea, baina zoritxarrez orain arte ez da horrela izan.

2. AHTk ez du murrizketarik izan

aurrekontuetan, ezta gutxiago ere!

Urteak daramatzagu salatzen azpiegitura handiek sarritan ez dutela balio

esan zaigunerako, eta askotan gutxiegi erabiltzen direla. Honen beste adibide argi bat da azken egunetan izan dugun albistea: Estatuak ez du Burgostik Gasteiza bitarteko AHTaren zatirik eraikiko. Arlo askotan jada onartu da geneukan gaitasun ekonomikoaren gainetik eraiki dela. Baina badirudi hau ez dela nahikoa, eta Nafarroako eta Euskadiko gobernuek bere horretan jarraitzen dute, paretaren kontra joaten, eta gu guztiok amildegira eramaten.

	EAE	Nafarroa
2009	71,5	-
2010	187,1	5
2011	247,4	1,4
2012	376,8	134
2013	367,8	68,5
2014	365,3	96,2
Guztira	1615,8	305,1

(milioi euro)

Datua latza da: 2014ko AHTaren aurrekontua Nafarroan %40a igo da eta EAEn mantendu egiten da. Nola liteke gauden egoeran, egunero murrizketa berriak ditugunean, zentzurik gabeko obra honek dagoen diruaren zati handi bat eramatea, zerbitzu publikoen kalterako? Erantzuna oraindik gogorragoa da: gutxi batzuk horrela izatea erabaki dutelako. Gobernuak eta interes ekonomiko konkretu batzuen ordezkariak erabaki dute lehentasuna beraien

poltsikoak diruz betetzea dela, zerbitzu publiko eta prestazio sozialen kalterako.

Azken bost urteetan obra hau hazkunde eta errekupeazio ekonomikoaren bermea izango zela sinestarazi nahi izan digute, eta krisitik irteteko esfortzu bat egin behar genuela esan digute (hiritarrok soilik noski). Ez diezagutela adarrik jo! Milioi guzti hauek gatu sozialera eta beharrezkoak eta logikoak diren inbertsioetara bideratu izan balira ez ginateke orain gauden bezala egongo! Ez enplegurik, ez zerbitzurik ez eta prestaziorik. Eta okerrena da AHT kostala ala egitearen politikarekin jarraituko dutela.

Baina ELAk borrokan jarraituko du ekonomikoki eta sozialki beharrezkoa ez den, eta ingurumenaren eta gastu sozialaren aurkako eraso larria den obra hau geldiarazteko.

3. Pasaiaiko Portuaren birsortzea kanpoko porturik gabe egiteko adostasuna. Azkenean!

Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Pasaiaiko Udaletxea eta Pasaiaiko Portuko Agintaritza ados daude Pasaiaiko kanpoko portuaren proiektuak zentzurik ez duela esatean. ELAk makro proiektu hau geldiarazteko borroka egin du hasieratik. Ez zuen inongo zentzurik portua handitzeak

Jaizkibelgo magalean (babestutako eremua) kanpoko kai bat eraikiz, horrek suposatzen duen ingurumen inpaktuagatik, eta barneko portuaren eremu guztia erabiltzen ez delako. Horretaz gain, aipatu behar da diru xahutze izugarria zela eta ez zeukala finantziatorik.

Orain Pasaiaiko badiaren birsortzearen aldeko apustua egin dute, eta puntu honetan adostasuna egon arren, udaletxea eta Portuko Agintaritzaren arteko harremanak etorkizuna baldintzatuko du, harreman konplikatuak baita. Biek espazio bera partekatzen dute, non pertsonen eta jarduera ekonomikoaren arteko bizikidetzak zaila den. Eskualdearentzat portua azpiegitura estrategikoa da baina baita espazio publikoaren berreskuratzea ere (udalerriek lurzorua behar dute eta portuak erabili gabeko zonaldeak ditu). Badiaren etorkizuna erlazio honek zehaztuko du.

Garai berria dator eta gauzak ongi egiteko baliatu behar da. Horretarako hiritarren eta portuaren beharrak kontuan izan behar dira; benetako birsortzea egin behar da portuko jarduera dibertsifikatuz eta lurraren erabilera berriak ahalbidetuz, baina beti inguruan bizi direnen beharrei erantzunez. Horretarako guztion benetako parte hartzea ezinbestekoa da. Prozesu luze eta neketsua izango da.

ELAk urteak daramatza Pasaiko badiaren birsortze osoa eskatuz, eta birsortzea izan zen eraiki nahi zen kanpoko portuari aurkezten genion alternatiba. Gure orroka ez da hemen bukatzen, orain benetako biziberritzeak aurrera egin dezan lan egingo dugu, eskualdearen beharrei erantzun diezaion eta ez gutxi batzuen interes ekonomikoei.

4. Zubietako erraustegiaren behin betiko

geldiaraztea adostu da

Azaroaren 13an itxi zen GHK (Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa) eta UTE Gipuzkoaren arteko akordioa. Akordio honek Zubietako erraustegiaren eraikitze proiektuaren kontratua bertan behera uzten du. Bi aldeek honakoa adostu dute:

- Eraikitze kontratua adostasunez etetea.
- GHK-k 8.190.000 euro ordainduko dizkio UTE Gipuzkoari. 6.690.000 euro azpiegituraren eraikuntzan irabazteari utziko dionagatik eta 1.500.000 euro erraustegiaren lehen bost urteko ustiaketagatik irabazteari utziko dioenagatik.

Alde batetik, positiboa da erraustegiaren eraikuntza bertan behera geratzea, "zero zabor" helburura iristeko oztopo handiena baitzen. Baina bestalde,

onartezina da geldiaratearen kostea (8,2 milioi euro), nahiz eta eraikitzea baino askoz merkeagoa izan (350 milioi euro). Onartezina da ezer ez egiteagatik horrelako dirutza ordaindu behar izatea. Baina nola heldu gara egoera honetara?.

2011ko udal eta foru hauteskundeetan aurretik, eta Ezker Abertzaleak Foru Aldundian eta GHKn (udaletako ordezkariak osatua) lortu zezakeen presentzia ikusiri, azken orduan erraustegiaren eraikuntza kontratua sinatu zen, kontratua bertan behera geratuz gero izango ziren kalte-ordain eta guzti. Beraz 8,2 milioiko kalte ordainaren ardura kontratua sinatu zutenek dute, hau da GHKko aurreko ordezkariak. Nahiz eta orain ordaindu beharrekoa bidegabekoa dela esaten duten. Beraiek sinatu zutena zen bidegabekoa, bai bazekiten hau gertatzeko aukera handiak zeudela.

ELAk bere momentuan erraustegiaren eraikitze kontratuaren azken orduko sinadura hau salatu zuen ELA, orain gertatu dena aurreikusten baitzen.

5. Europako Konferentzia ekosozialista

Urtarrilaren 24tik 26ra Ginebran (Suitza) "Ginebrako topaketa ekosozialista" ospatuko da, non ELAk parte hartuko duen.

Hau da egiten den deialdia:

**“KONFERENTZIA ECOSOZIALISTA BATEN
ALDEKO DEIALDIA”**

“Krisi ekologikoa, zeinaren erakusle arriskutsuenetakoa klima aldaketa den, aurrekaririk izan ez duen jendartearen eta ingurumenaren aurkako inoizko mehatxu larriena da. Hondamendi honen oinarrian irabazien akumulazioan, kontsumismoan eta merkantziekiko fetixismoan oinarrituriko zibilizazio bat dago, mendebaldeko kapitalismoarena. Bere logika mugarik gabeko hazkundera da eta hau bateraezina da ingurumenaren babesa.

Sistema kapitalistak ematen dizkigun irtenbideak (kapitalismo berdea, garapen iraunkorra, karbono merkatuak, energia nuklearra,...) onartezinak iruditzen zaizkigu eta ez dira jendarteak sufritzen duen larrialdi ekologiko eta sozial honi benetako erantzunak.

Ekosozialismoa, sozialismoaren oinarriak eta ekologia kritikoaren aurrerapenak elkartzeko saiakera bat da. Bere helburua zibilizazio berri bat da, bizimodu

alternatibo bat, balore sozial eta etiko berrietan oinarritua. Ekosozialismoa ez da bateragarri kapitalismoarekin. Gure ekosozialismoa antikapitalista eta feminista da.

Alternatiba berri honen eraikuntzan batera aurrera egiteko Suitzako Solidarités-eko talde ekosozialistak proposaturiko Europako Jardunaldi Ekosozialistetan parte hartzeko gonbitea luzatzen dugu, 2014ko urtarrilaren 24tik 26ra Ginebran ospatuko direnak.

Guk parte hartuko dugu, eta parte bertan izango diren talde, eragile eta erakunde ezberdinei parte hartzeko deialdia egiten diegu. Jardunaldi hauen helburua zera da: esperientziak konpartitzea, gure ekosozialismo kontzeptuan sakondu eta lantzea, eta programa eta kanpaina komunak proposatzea.”

[Hemen](#) klikatuz aurkitu dezakezue honi buruzko informazio gehiago.